

LH. 5, 6

SAIOAK: Aurretik 2-3 / Ekoetxea / Ondoren 2-3



| IKASGAIA  | GAI EKOSOZIALAK   | INGURUMEN-POLITIKAK  |
|---|---|--|
| Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza | <ul style="list-style-type: none"> <li>Ekodependentzia</li> <li>Zibilizazio krisia</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Ekonomia zirkularra</li> <li>Ura</li> <li>Hondakinak</li> <li>Kontsumoa</li> <li>Energia</li> <li>Garraioa</li> <li>Biodibertsitatea</li> <li>Ohitura jasagarriak</li> <li>Lurzorua</li> <li>Aldaketa klimatikoa</li> </ul> |

## Ikas egoeraren markoa

**TESTUINGURUA.** Egunero telebista eta beste hedabide batzuetan gerrak, heriotzak, suteak, pobrezia, uholdeak, lehortekak etab ikusten ditugu. Gure inguru hurbilean ere era batera edo bestera hauen ondorioak nabaritzen dira; beste herrialde batzuetatik etorritako familiak lana eta bizi hobeago bat bilatzen, gerretatik ihes egiten...

## Abiapuntua

*Honen aurrean galdera batzuk sortzen zaizkigu. Nola dago benetan gure planeta? Zer egin dezakegu guk? Konponbiderik dago?*

**AZKEN EKOIZPEN EDO PRODUKTUA.** Ikaskuntza esperientzian zehar egindako jardueri esker, ikasleak naturatik hurbilago egongo dira eta natura zaintzeko hainbat tresna ezagutu eta erabili ahal izango dituzte.




## HELBURU KONPETENTZIALAK

- Oinarrizko jakintzak eskuratzea, Urdaibai ingurune naturaletan bitziko esperientzia esanguratsuen bidez, ikasleen pentsatzeko eta jarduteko modua aldatzeko jasagarritasun irizpideen arabera.
- Garapen Jasagarriko Helburuak ezagutaraztea eta hauen garrantziaz sentsibilizatzea.
- Urdaibai biosfera erreserbako antolamendua ezagutu, natura, gizakia eta azken honek eragiten dituen jarduera ekonomikoan arteko oreka posible dela ulertuz, garapen iraunkorreko helburuen inguruko hausnarketa egiteko.
- Garapen iraunkorra posible dela ulertu, inguruko ekosisteman natura eta gizakiaren arteko elkarrekintzak ezagutuz, etorkizunerako baliabideak mantentzeko.
- Garapen Iraunkorraren garrantziari buruz hezteko, honen aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak sustatzeko.
- Garapen iraunkorraren helburuak (GIH-ak) ezagutaraztea, iraunkortasunak batzen dituen gaien aniztasuna ulertzeko.
- Gizakiak bere inguruan duen eraginaz ohartzea, gure ekintzen inguruko hausnarketak bultzatzeko.
- Talde lana sustatzea, arazo orokorrak konpontzeko tresna gisa.

## Curriculumaren zehaztapenak

## NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA


| FUNTZ. KONP  | DESK.  | KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK   | EBALUAZIO IRIZPIDEAK  | ONINARRIZKO JAKINTZAK   |
|--|--|---|---|---|
| HKK<br>KE<br>STEM<br>KD<br>KPSII<br>HK<br>EK         | 1,2,3<br>1,2,3<br>5<br>2,3<br>1,2,3<br>3,4<br>1    | <b>4. Norberaren gorputza, norberaren eta besteen emozio eta sentimenduak ezagutzea eta horien kontzientzia hartzea, eta ezagutza zientifikoan oinarritutako ohitura osasungarriak garatzea, ongizate fisikoa, emozionala eta soziala lortzeko.</b>   | 4.2. Ongizate emozionala eta soziala sustatzen duten jarrerak sustatzea, norberaren eta besteen emozioak identifikatuz, balioan jarriz, harreman afektibo osasungarriak sustatuz eta teknologiaren eta aisialdiaren kudeaketaren erabilerei buruz hausnartuz.   | <b>A. Kultura zientifikoa</b><br><b>2. Bizitza gure planetan:</b><br>– Jokabide osasungarri eta jasangarriak, osasun fisiko, emozional eta sozial egokia sustatzen dutenak, eta halakorik ezaren ondoriozko arriskuak eta gaixotasunak: estresaren eta ziurgabetasun-egoeren kudeaketa.<br>– Kontsumo arduratsua eta jasangarria, loaren higieena, aisialdiaren kudeaketa, gailu digitalen erabilera egokia eta gizarte-harreman osasungarriak sustatzeko estrategiak, adikzioen ondorio kaltegarriak pertsonen garapenean eta kontsumoaren prebentzioa: tabakoa, alkohola eta beste substantzia batzuk. Lehen laguntzak.   |
| HKK<br>KE<br>STEM<br>KD<br>KPSII<br>HK<br>EK<br>KAKK | 1,3<br>1,2<br>1,2,4,5<br>1<br>4<br>1,4<br>1<br>1,2 | <b>5. Natura-, gizarte- eta kultura- inguruneko elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.</b> | 5.1. Natura-, gizarte- eta kultura inguruneko elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak identifikatzea, ikerketa-metodologiaren bidez eta tresna eta prozesu egokiak erabiliz.<br>5.2. Natura-, gizarte- eta kultura inguruneko elementuen arteko konexio errazak identifikatzea, eta ezartzen diren harremanak ulertzea.<br>5.4. Natura- eta kultura-ondarea balioestea eta babestea, guztien ondasuntzat jotzea, ondare horretaz gozatzeko errespetuzko jokabideak hartzea eta ondare hori kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak proposatzea. | <b>A. Kultura zientifikoa</b><br><b>2. Bizitza gure planetan:</b><br>– Naturaren erresumak ikuspegi orokor eta integratu batetik, ekosistemen ezaugarrien azterketa eta analisia oinarri hartuta. Elementuen eta baliabideen arteko oreka. Euskal Herriko ekosistemak.<br>– Gizakiak ekosistemekin duen harremana (hurbiltasunetik globaltasunera) gizartearen beharrak asetzeko. Gure planetako baliabide naturalen erabilera egokiak eta txarrak eta horien ondorioak. Biodibertsitatearen zeregina biosferaren orekan.<br>– Animalien berezko ezaugarriak, ingurunera egokitzeko duten ahalmenarekin lotutako azpitaldeetan sailkatzeko eta bereizteko aukera ematen dutenak: energia lortzea, ingurunearekiko harremana eta espeziearen betikotzea.<br>– Landareen berezko ezaugarriak, ingurunera egokitzeko duten ahalmenaren arabera sailkatzeko aukera ematen dutenak: energia lortzea, ingurunearekiko harremana eta espeziearen betikotzea.<br><b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b><br><b>2. Gizarteak denboran zehar</b><br>– Natura- eta kultura-ondarea. Natura-gune eta kultura-gune babestuak eta horien kokapena Euskal Autonomia Erkidegoan eta Euskal Herrian. Horien erabilera, zaintza eta kontserbazioa. |



LH. 5, 6

SAIOAK: Aurretik 2-3 / Ekoetxea / Ondoren 2-3

| FUNTZ. KONP  | DESK   | KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK  | EBALUAZIO IRIZPIDEAK   | OINARRIZKO JAKINTZAK   |
|--|--|--|--|--|
| HKK<br>KE<br>STEM<br>KD<br>KPSII<br>HK<br>EK<br>KAKK | 1,2,3,5<br>1,2,3<br>1,2,5<br>2,3,5<br>4,<br>1,2,3,4<br>1,2,3<br>1. | <b>6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarritz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.</b> | 6.1. Pertsonen bizitzaren eta ingurunekeo elementu eta baliabideen gaineko haien ekintzen arteko erlazioa kritikoki aztertzea, giza ekintzak ingurunean eragiten dituen aldaketa positiboek eta negatiboek jabetuta eta bizitza bere forma desberdinetan errespetatuta.<br><br>6.2. Planeta, pertsonak eta ingurunea zaintzeko, babesteko eta errespetatzeko ohitura jasangarri egokiak praktikan jartzea. | <b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b><br><b>4. Kontzientzia ekosoziala</b><br>– Klima-aldaketa tokikotik globalera: kausak eta ondorioak. Arintzeko eta egokitzeko neurriak.<br>– Erantzukizun ekosoziala. Pertsonen, gizartearen eta naturaren arteko erlazioak eta ekomendetasuna. Enpresen erantzukizun sozial eta ekologikoa.<br>– Eredu ekonomiko berria bat: ekonomia berdea/zirkularra. Garapen jasangarrirantz.<br>– Ondasunetako, finantzetako eta laneko merkatuen eragina herritarren bizitzan eta ekosistemetan (estraktibismoa). Eragile ekonomikoak eta lan-eskubideak genero-ikuspegitik (ekofeminismoa). Zergen balio soziala. Enpresen gizarte- eta ingurumen-erantzukizuna.<br>– Publizitatea, kontsumo arduratsua (beharrak eta nahiak) eta kontsumitzailearen eskubideak. |
| HKK<br>KE<br>KD<br>KPSII<br>HK<br>KAKK               | 1,2,5<br>1,3<br>1,2,3<br>3<br>1,2,3<br>1,2.                        | <b>8. Aniztasuna eta genero-berdintasuna onartzea eta baloratzea, pertsona guztiekiko enpatia eta errespetua erakutsita, gai etikoei buruz modu kritikoa hausnartuta, etengabe eraldatzen ari den gizarte baten ongizate indibidual eta kolektiboan laguntzeko eta Europan bizikidetzak baketsua eta errespetuzkoa lortzeko.</b>   | 8.2. Genero-berdintasuna, ikuspegi ez-estereotipatua eta jokabide ez-sexistak sustatuko dituzten ekintzak positiboki baloratzea, eta historian zehar izandako eredu positiboak antzematea.   | <b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b><br><b>1. Egungo munduaren erronkak</b><br>– Genero-berdintasuna eta jokabide ez-sexistak. Estereotipoak eta rola kritikatzeko hainbat esparrutan: akademikoa, profesionala, soziala eta kulturala. Pertsona guztien arteko egiazko berdintasunerako ekintzak.   |



## Ikuspegi ekosoziala

## IKASKUNTZA EKOSOZIALA

\* 1. Giza ekodependentzia barneratzea. Bizitzaren sarearen parte garela ohartzea.

\* 6. Bizi dugun zibilizazio-krisia onartzea.



## EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

\* Azaldu nola sortzen duten izaki bizidunek lurzorua, nola garbitzen duten ura eta nola garbitzen duten airea. Horrek gure biziraupenerako duen garrantzia ezagutzea.

\* Gizakiak gainerako izaki bizidunak behar dituela adieraztea / Gizakiak gainerako izaki bizidunak behar ez dituela ez adieraztea.

\* Krisi ekologiko eta sozialerako irtenbideak abian jartzearen garrantzia adieraztea.

\* Klima-aldaketa, energia eta material-krisia eta biodibertsitate-galera inpaktu sozialak dituzten arazo gisa identifikatzea.



## OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

\* Ekodependentzia kontzeptua. Gizakiak bere beharrak modu autonomoan asetzeko ezintasuna, naturaren baliabiderik gabe.


\* Ekodependentzia ikusezina (ekodependentzia dugun eguneroko bizitzako alderdiak).

\* Klima-aldaketa, energia- eta material-krisia eta biodibertsitatearen galera, inpaktu sozialak dituzten arazo gisa.

\* Ekintza individualaren eta kolektiboaren garrantzia.



Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren konpetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan. Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentea da FUHEM.



## Metodologia



### ESTRATEGIA

Zereginetan  
oinarritutako ikaskuntza  
Gogoetan oinarritutako  
ikaskuntza  
Gamifikazioa  
Beste batzuk



### ESTRATEGIA EKOSOZIALAK

Ikuspegi sozioafektiboa  
Ekintzarako ikaskuntza  
Ikaskuntza aktiboa



### TEKNIKAK

**OHIKOAK:**  
Ikus-entzunezkoak  
Solosaldua  
Entzute kolektiboa  
Azalpenak talde  
handietan  
Beste batzuk

**EZOHIKOAK:**  
Beste batzuk:  
Ingurumen zentroa

